

# JOXEPIREN DENDA

Joan den abenduan Joxepiren denda itxi egin zen betirako, eta geroztik, Erdiko kaleari zerbait falta zaiola iruditzen zait. Bai, badakit sentibera hutsa naizela, baina txikitatik ohituta nengoen dendatxo hori Errenderiako ardatz gisa hartzen, Ali Baba-ren kobak bezainbat lilurutzen ninduelako.

Kanpotik begiratuta txikia eta grisa bazen ere, barrutik mundu bizi, koloredun eta erakargarria iruditzen zitzaidan, jakina bait da janaridendak oso gustagarriak direla haur ororentzat. Ondo pentsatuta, ez da harritzekoa: janaridenda batean dena da kolore, usain eta mogimendu haur batentzat. Jendea etengabe aldatzen da, ahots eta kontu ezberdinak entzun daitezke, gauzak ukitu, pisatu, bildu egiten dira, dirua eman eta hartu, eta hain goxoak diren litxarrerria guztiak ere-txupatru-sak, txikleak, azeitunak etab... -eskura edukitzea ez da tentazio makala haur batentzat.

Orduak eta orduak pasa ditut dendatxo horretan, dena begi belarri: helduen kontuak entzuten, kaleko istorio zahar-rak (ba al dakizue Santa Kruz apaizak Erdiko kalean, 19. zenbakian, ostatu hartu zuela?), esamesak, algarak, era Guztietako berniketak euskaraz entzuten. Haur nahiko belarrimotza izanda, uste dut Joxepiren dendak, gaur egungo euskaltegi baten papera egin zuela nire kasoan, frankismoaren urte ilun haietan nik ez bait nuen inon dendatxo horretan baino euskara gehiagorik entzun.

Horregatik agian, heldu eta euskaldundu nintzenean, ipuin bat idatzi nuen, errealtatea eta fantasia tartekatuz: JOXEPI DENDARIA izenburukoa, non haurtzaroko inpresio guzti horiek eta egungo denda txikien problematika azaltzen saiatu bait nintzen. Gaur egun, katalan, gailego eta gazteletera itzulta dagoena, hain zuzen.

Beraz, eta harira itzuliz, Joxepiren denda itxi egin dela eta Erdiko kaleari zerbait falta zaiola iruditzen zait. Joxepi eta Xele Etxebeste ahizpengana, errendiar peto peto haiengana jo dut,



MARIASUN LANDA

34 urte hauetako balantzetxo orokor baten aitzakiaz... Xelek, beti zuhurra, Joxepiri pasa dio enbidoa:

## LEHENENGO URTE HAIETAN

*"1952-ko uztailaren 1.ean zabaldu nuen denda. Urte hartan tranbia zuria kendu eta trolebusak jarri zituztela gogoratzen dut. Baita ditxosozko "racionamiento" hura ere urte hartan amaitu egin zela. Bi gertaera haiek izan ziren nire lehenengo bezeroen berriketa gaia..."*

*Erdiko kalea, lauxa edo adokinez eginda zegoen, bi espaloi txiki eta errekatxo bat zituen. Merkatal mugimendu haundia zegoen, denetarik saltzen bait zen: harategia, arraindegia, okindegia, taberna, botika, saskidenda... baita ehortzetxe edo funeraria ere! Ganadu etaazienda ugari pasatzen zen kaletik, Santa Klaran perratokia bait zegoen, eta udaldian, iratzez oso kargaturiko gurdiak pasatzen zirenean haurrak gurdi gainera igotzen ziren. Sus-to bat baino gehiago izan genuen! Eta zer esanik ez, asto-ak ere ugari zebiltzan! Oiartzun eta Errenderiako baserri-tarrak etortzen ziren astoz eta Piorenean pentsu eta hazia erosi bitartean astoak lotuta uzten zituzten. Haiek ziren haiek, zarata eta iskanbilak! Bestalde, ez zen kotxe bat ikusten. Eta Erdiko kalea, baserriarren merkatal zentroa zenez gero, euskara besterik ez zen entzuten urte haietan".*

## EGUNERO LAU EDO BOST ALDIZ DENDARA

*"Goizeko seiretan joaten nintzen dendara. Zazpietan ireki eta pioiak etortzen ziren. Eguardian bi ordutako atsedena eta ilundu arte, jo eta ke! Larunbata osoan eta igande goizean ere egiten genuen lan. Dena "a granel" saltzen genuen, ehundako lana suposatzen zuen horrek eta ez pentsa orain bezainbeste erosten zenik! Orduan ez ze-*

goen dirurik, xentimoari asko begiratu behar zitzaion gauzak kantitate gutxitan erosten ziren, eta normala zen lau edo bost aldiz dendaratzea, azukre laurden bat, 25 gramo kafe, arraultze pare bat erostera eta bide batez, denbora pasatzera, garai hartan etxekoandre askok ez bait zuen hortik aparte beste dibertsiorik... 1960.etik aurrera, kanpotarrak etortzen hasi zirenean, gauza diferente batzu eskatzen zituzten: manteka, enbutidoak, entsaladarako tomate gordina etab... Gaur egun hain arruntak iruditzen zaizkigun gauza horietara ez geunden ohituta. Haurrentzako goxoki, txikle etab. orduan ere hasi ginen saltzen. Hemen ez zegoen eta haurrei litxarreriak erosteko ohiturarik".

## EMAKUMEEN FOROA

"Ea zertaz hitzegiten zen dendan? Danetaz. Beno, politikaz hitzegitea pentsaezina zen lehenengo urteetan. Baina, etxekoandre askorentzat dendara joateak denbora pasan egotea suposatzen zuen gehien bat, lasaialdi bat hartzea: eguneroko gorabeherak komentatu, esamesak, kontu zaharrak, elizako sermoiak etab... Badakizu, gizonak tabernan eta emakumeak elizan ala dendan. Gero irratia zabaldu zenean, gutxiago etortzen ziren dendara, bai

ordea arratsaldeko irratia nobela bukatutakoan eta komentario ugari egiten zuten.

Eta gero telebista, noski! Telebistak asko aldatu zuen dendako tertulia edo denbora pasaren giro hura. Telebista zela eta, etxekoandre guztiak presaka ibiltzen hasi ziren. Guzti horri Mamut-en tankerako erostetxe handien eragina eta arrakasta erantsi, eta denda txikien egoera, nik ezagutu nuenetik hona, zeharo aldatu egin dela esan dezaket.

Gaurko denda txikien etorkizuna latza da oso. Baina nik uste dut, jendearen joera aldatu egingo dela berriro. Egoera ekonomikoa larriagotu egin da, eta erostetxe handi hoietan, nahiz eta merkeago saldu, jendea konturatzen hasi da askotan behar baino askoz gehiago erosten duela eta ondorioz gehiago gastatzen duela... Balantzea? Urte hauetan asko ikasi dut dendan. Asko. Eta ez banaiz aberastu ere, amistade handiak egin ditut. Ez al da nahikoa?".

Isildu egin da Joxepi eta magnetofoiak klik egin du, grabaketa bukatu egin dela adieraziz. Xelek eskeinitako kafea edan ondoren berriro hasten gara hitzegiten, geroari buruz oraingo honetan. Bizitzak aurrera jarraitzen bait du.